# emaiezu beste aukera bat

## bolumen handikoen "etxez etxeko" bilketa







# dales otra oportunidad

## recogida de voluminosos "puerta a puerta"

# prebentzioa lehenik

Gehiago ez sortzea da zaborraren tratamendurik onena. Horregatik, Gipuzkoako Hondakinen Planaren (PIGRUG) lehen helburua hazkunde-tasa hori %90ean murriztea da.
Oso sinplea da: **arazoa murrizteko gai izango bagara, soluzioak bilatzea errazago egingo zaigu.**





# lo primero: prevenir

El mejor tratamiento para la basura es no producirla. Por ello, el primer objetivo del Plan de Residuos de Gipuzkoa (PIGRUG) es reducir en un 90% la tasa de crecimiento de residuos.
La razón es sencilla: **si somos capaces de reducir el problema, será más sencillo encontrar las soluciones.**

## bolumen handikoak: prebentziorako aukera bat

Prebentzioaren aldeko lana egiteko aukera ematen digute bolumen handiko hondakinek. Modelo berriengatik aldatzen ditugun altzariek, ordenagailuek edo etxetresna elektrikoek ez dute zertan zabortegietaraino iritsi behar; berreskuratu daitezke, konpondu eta behar dituzten pertsonek eskura ditzakete. **Gure zabortegietako zaborren kopurua murrizteko modu eraginkorra eta iraunkorra da.**







## voluminosos: una oportunidad para prevenir

Los residuos voluminosos nos ofrecen la oportunidad de trabajar por la prevención. Los muebles, el ordenador o los electrodomésticos que sustituimos por nuevos modelos, no tienen por qué acabar en el vertedero; pueden ser recuperados, reparados y puestos a disposición de personas que los necesiten. **Esta es una forma eficaz y sostenible de reducir el volumen de basuras en nuestros vertederos.**

| Bolumen handiko hondakinak direnak: | Son residuos voluminosos: |
|---|---|
| • Altzariak.<br>• Koltxoiak.<br>• LINEA ZURIKOAK: Hozkailuak, garbigailuak, etab.<br>• LINEA MARROIKOAK: Telebistak, musika-aparatuak.<br>• LINEA GRISEKOAK: Ordenagailuak. | • Muebles<br>• Colchones<br>• LÍNEA BLANCA: Frigoríficos, lavadoras, etc.<br>• LÍNEA MARRÓN: Televisores, aparatos de música.<br>• LÍNEA GRIS: Ordenadores. |
| **Bolumen handiko hondakinak ez direnak:** | **No son residuos voluminosos:** |
| • Obra-hondakinak. | • Escombros y restos de obras. |

# "etxez etxeko" bilketa

Prebentziorako ezinbestekoa da parte-hartzea. **Bolumen handikoen etxez etxeko bilketa-zerbitzuari esker, prebentzioan parte-hartzea oso eroso egingo zaigu.**

Nahikoa da dei bat egitea, zerbitzu honetako langileak bolumen handikoa jasotzera zure etxeraino joateko, eta desmuntatu ondoren (hala behar bada) garraiatu egingo dituzte, berreskuratu eta berriz erabili edo birziklatzeko.





# recogida "puerta a puerta"

Prevenir exige participar. **Gracias al servicio de recogida puerta a puerta de voluminosos, prevenir y participar es lo más cómodo.**

Una llamada de teléfono es suficiente para que el servicio acuda a su domicilio, recoja el objeto voluminoso (tras desmontarlo si fuera necesario) y lo transporte para su recuperación y posterior reutilización o reciclaje.



# zer egiten da jasotako hondakinekin?

Hondakinen egoeraren arabera, erabilera ezberdinak izan ditzakete:

- Ahal den guztietan objektuak konpondu eta egokitu egiten dira, berriz erabili ahal izateko.
- Berriz erabiltzea ezinezkoa denean lehengai moduan erabil daitezkeen materialak hartzen dira, objektu berriak fabrikatzeko (birziklapena).

**Helburua: %70 baino gehiago berreskuratzea**

Bolumen handikoen etxez etxeko bilketa-kanpainaren helburua bolumen handiko hondakinen %70 baino gehiago berreskuratzea da (berrerabiltzea + birziklapena).

# qué se hace con los residuos recogidos

En función de su estado de conservación, los objetos recogidos tienen diferentes usos:

- Siempre que sea posible, los objetos se reparan y acondicionan para que puedan ser reutilizados.
- Si no es posible la reutilización, se extraen los materiales que pueden ser utilizados como materias primas para fabricar nuevos objetos (reciclaje).

**Objetivo: recuperar más de un 70%**

El objetivo de la campaña de recogida de voluminosos puerta a puerta es lograr recuperar (reutilización+reciclaje) más del 70% de los residuos voluminosos.



# esperientzia eredugarria

Urola Kostako eta Urola Erdiko mankomunitateek, Gipuzkoako Foru Aldundiko Garapen Iraunkorrerako Departamentuarekin batera, bolumen handikoak etxez etxe biltzeko **esperientzia pilotua** abian jarriko dute . **Helburua, Urola Kostako eta eta Urola Erdiko emaitzak aztertu ondoren, programa bera Gipuzkoa osora hedatzea da.**

# una experiencia modelo

Las mancomunidades de Urola Kosta y Urola Medio, junto con el Departamento para el Desarrollo Sostenible de la Diputación Foral de Gipuzkoa, ponen en marcha la recogida puerta a puerta de voluminosos como **experiencia piloto. El objetivo tras constatar los resultados en Urola Kosta y Urola Medio, es la extensión del programa al conjunto de Gipuzkoa.**

# urola kosta

Urola Kostako mankomunitatean abian jarriko den etxez etxeko bolumen handikoen bilketa-zerbitzua eskuratu nahi dutenek **ondorengo telefono-zenbakira deitu beharko dute:**

Las personas que deseen acceder al servicio de recogida de objetos voluminosos puerta a puerta de la Mancomunidad de Urola Kosta, **deben ponerse en contacto con el siguiente teléfono:**

## maiztasuna

**Egunero, astelehenetik larunbatera bitartean, Urola Kostako udalerri guztietan:**

**902 54 06 54**

## frecuencia

**Diaria,de lunes a sábado, en todos los municipios de la comarca Urola Kosta:**



**AIA - GETARIA - ORIO - ZARAUTZ - ZUMAIA**

## bilketarako ordutegia

Behekoak dira etxez etxeko bilketarako orduak:

## horario de recogida

Los horarios de recogida en el domicilio, son los siguientes:

| | | |
|---|---|---|
| ASTELEHENA | 16:00 - 20:00 | LUNES |
| ASTEARTEA | 10:00 - 14:00 • 16:00 - 20:00 | MARTES |
| ASTEAZKENA | 10:00 - 14:00 • 16:00 - 20:00 | MIÉRCOLES |
| OSTEGUNA | 10:00 - 14:00 • 16:00 - 20:00 | JUEVES |
| OSTIRALA | 10:00 - 14:00 • 16:00 - 20:00 | VIERNES |
| LARUNBATA | 10:00 - 14:00 • 16:00 - 20:00 | SÁBADO |

# urola erdia

Urola Erdiko mankomunitatean abian jarriko den etxez etxeko bolumen handikoen bilketa-zerbitzua eskuratu nahi dutenek **ondorengo telefono-zenbakira deitu beharko dute:**

# urola medio

Las personas que deseen acceder al servicio de recogida de objetos voluminosos puerta a puerta de la Mancomunidad de Urola Medio, **deben ponerse en contacto con el siguiente teléfono:**

**943 36 75 34**

| maiztasuna | | frecuencia |
|---|---|---|
| Hilabeteko hirugarren ostiralean | **AIZARNAZABAL** | Tercer viernes de cada mes |
| Ostiralero | **AZKOITIA** | Todos los viernes |
| Ostiralero | **AZPEITIA** | Todos los viernes |
| Hiru hilez behin (hileko lehenengo ostiralean) • urtarrilean, apirilean, uztailean eta urrian | **BIDEGOIAN** | Trimestral (primer viernes de cada mes) • enero, abril, julio y octubre |
| Hiru hilez behin (hileko lehenengo ostiralean) • urtarrilean, apirilean, uztailean eta urrian | **ERREZIL** | Trimestral (primer viernes de cada mes) • enero, abril, julio y octubre |
| Hilabeteko lehenengo eta hirugarren ostiralean | **ZESTOA** | Primer y Tercer viernes de cada mes |

## ordutegia

Goizeko ordutegian bildu ohi da.

## horario de recogida

La recogida se realiza habitualmente en horario de mañanas.




Deituz gero, **zure etxera joango gara bolumen handiko hondakinak jasotzera.** Horrela, hondakinak desmuntatuko ditugu berriz erabili ahal izateko eta gure zabortegietan pilatzen diren zaborren kopurua murrizteko.

Si nos llamas, **recogeremos los residuos voluminosos en tu domicilio.** De esta manera podremos desmontarlos para reutilizarlos y reducir así las basuras que se depositan en nuestros vertederos.

**bolumen handikoen "etxez etxeko" bilketa**

**recogida de voluminosos "puerta a puerta"**

Prebentzioari aukera bat emateko, nahikoa da dei bat egitea:

Una llamada es suficiente para dar una oportunidad a la prevención:

**902 54 06 54** • **943 36 75 34**

UROLA KOSTAKO UDAL ELKARTEA

UROLA ERDIALDEKO Z. MANK.

hasi!

UROLA KOSTAKO UDAL ELKARTEA

UROLA ERDIALDEKO Zerbitzu Mankomunitatea
Mancomunidad de Servicios del UROLA MEDIO

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa
Garapen Iraunkorreko Departamentua
Departamento para el Desarrollo Sostenible

aurrea hartuz, aurrera • www.gipuzkoa.net • prevenir es porvenir